

Ugaitz Odriozola

## NOR GARA? NORA DOA?

Edozein euskaldunentzako euskaldun bat zer den dabil beti gure buruan. Batak euskaldun egiten gaituena euskara dela, besteak berriz euskal ohituran bizi dena dio. Hiztegiko definiziora jotzen baldin badugu argi irakurri ditzakegu euskalduna dela euskara dakien pertsona. Definizio hau edozein hiztegitan aurki dezakegu. Baina "Ingeles jakiteak ez gaitu ingeles bihurtzen." Eta egia da, baina euskaldun hitzak esaten du: euskara duena. Bizardun, bizarra duena, dirudun, dirua duena, bibotedun, bibotea duena. Ingelesa Ingalaterrakoa da eta frantsesa Frantziakoa. Argi dago. Baina euskalduna ez da Euskal Herrian jaiotakoa, Euskal Herrikoa da. Argi geratzeko erdararen ikus dezagun. Euskal herrikoak "vascos" dira "pais vasco"-koak direlako Gaztela-mantzakoak ez dira gazteladunak edo mantzadunak gaztelera "manchegos", ez dute ezer ikusirik hizkuntzarekin. Hobeto ulertzeko "vascos" hitzak ez du esaten hizkuntza baten jabe dena, baizik eta Iberiar penintsulako zonalde bateko biztanleak. Euskararen berriz euskaldun hitzak bai ematen diola hizkuntza bat hiztun bati, hau da, euskara hizkuntza, horrek euskaldun egiten ditu.

Ildo beretik jarraituz erdararen erabilera erdaldun egiten gaitu. Bertan ikusi dezakegu erdara duen hiztuna erdalduna dela. Euskalduna euskara duen bezala. Baina espainolak ez dira erdaldunak edo frantsesak frantsesdunak, espainolak, frantsesak eta abar eta abar.

Beste herrialde batetara joateak eta bertako agiria lortzeak ez gaitu herri hartako biztanle egiten. Euskaraz hitz egiten baldin baduzu, bai hemen, bai Txinan, euskalduna zara.

Baina gehien inporta behar diguna ez da euskara euskaldun egiten gaituen edo hizkuntza baten hiztuna garen. Gure hizkuntzaren etorkizuna da gure buruetan bueltaka egon behar zuena. Euskararen beherakada eta desagertzea okerrena izango litzateke. Euskara da gure ezaugarria, euskaldunon bihotza. Joxe Antonio Artzek esan zuen: "hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik" hori da euskararen arazo. Jendea ikastea ez dago gaizki, baina zer egiten dute euskaldun berriak euskaldun zaharrak Aitorren hizkuntza erabiltzen ez badugu? Zein da euskaren etorkizuna? Inork ez daki nola eta noiz bukatuko den euskaraz hitz egitearen zaporea. Baina berrogei urtez nahiz eta debekatua egon bizirik jarraitu baldin badu nahiko triste izango litzateke gaur egun eta datozen biztanleek Europako hizkuntzen artean zaharrenetarikoa gure mapetatik ezabatzea eta horrekin batera gure izena, euskaldunak.

Gure hizkuntza gizartera eramatea beharrezkoa dugu. Dendetan, tabernetan, egoitza publikoetan eta abar. Hori da euskararen diferentzia beste hizkuntza batzuekin ez dagoela hain gizarteratua katalana edo galiziera bezala, ados nago kaleetan euskararen kutsua eta hautsak ikusten direla baina ez hobea izango euskarak oraindik bizi duen putzu eta sakona, itsaso urdina eta zabal batean bihurtzea.

Nahiz eta asko kostatu gaur egungo egoera ez dela hain egokia benetakoa da. Ez da ipuin bat, bueno, ipuina baino hobeto amets gaizto bat. Gure gizartean, ikastoletan, etxeetan euskaraz hitz egiteak ez gaitu gaizki egiten, gainera gure arbasoen herentzia bakarra mantenduko genuke komunitik behera bota behar ordez.

Besterik gabe espero dut testu honekin Aitorren hizkuntzaren egoeraz hausnartzea eta euskararen egoera poliki-poliki aurrera ateratzea.